

Zer da GIBa?

Giza immunoeskasiaren birusaren (GIBa) infekzioaren ondorioz sortzen da hiesa. Gorputzaren defentsak suntsitzen ditu, eta horrela atea zabaltzen die beste eritasun, tumore eta infekzio batzuei.

Nola gertatzen da GIBaren transmisioa?


GIBaren transmisioa gerta daiteke **preserbatiboa ez erabiltzeagatik sexu-harremanetan, injekzio-materiala partekatzeagatik** eta, baita ere, **amarengandik seme-alabengana, haurdunaldian, erditzean edo titia ematean**. Ez da kutsatzen musu ematean edo laztanak egitean; ez da kutsatzen elkarrekin bizitzeagatik edo lankide edo ikaskide izateagatik, ezta mahai-tresnak, edalontziak edo kirol-instalazioak partekatzeagatik ere.

Zer egin behar da GIBa ez kutsatzeko?

Sexu-harremanean sarketarik baldin bada, infektatuta dauden pertsonekin edo ote dauden ez dakitenekin **preserbatiboa erabili behar da**. Preserbatiboa modu egokian erabiliz gero, saihestuko dugu GIBa eta sexu-harremanen bidez transmititzen diren beste eritasun batzuk kutsatzea, bai eta, gainera, nahi gabe haurdun gelditzea ere.

Injektatzen diren drogak kontsumitzen baditugu, beti **material esterilizatua erabili behar da** eta ez partekatu xiringak, orratzak eta gisa horretako material ziztakariak.

Haurdun baldin bazaude eta GIBa baduzu, badira tratamendu batzuk, nahiko eraginkorrak, haurdunaldian eta erditzean birusa seme-alabei transmititzeko arriskua apaltzen dutenak. **Infektatuta dagoen amak ez dio titia eman behar haurrari.**



Informazio gehiago

GIBaren proba non egin jakiteko edo informazio gehiago lortzeko, orri hauetan aurkituko dituzu telefono zenbakiak:


Emakumeari Laguntzeko Zentroak
<http://bit.ly/14gFVfi>

Nafarroako Osasun Zentroak
<http://bit.ly/1hNZsT9>

Osasun Ministerioa
<http://bit.ly/1ExrfDp>

ELKARTEAK:
HIESaren kontrako Nafarroako Herritarren Elkarte
(ccasn@pangea.org)

SARE www.sare-vih.org/ (sare@pangea.org)



HIESA EZ DA IRAGANEKO KONTUA,
GOGORATU

 **ISPLN**
Nafarroako Osasun Publikoaren
eta Lan Osasunaren Institutua



HIESAREN AURKAKO MUNDU EGUNA
Abenduaren 1A



 **ISPLN**
Nafarroako Osasun Publikoaren
eta Lan Osasunaren Institutua



Badago motiborik aski GIBaren proba egiteko

Infekzio berrietan, gero eta maizago ikusten ari gara jendea kutsatu dela uste izanik ez dutela deus arriskutsurik egin. Gure inguruan, %77 kutsatu dira preserbatiboa ez

dutelako erabili sexu-harremana izatean beren ustez "arriskurik gabea" zen jendearekin.

Lehenago erabiltzen ziren tratamenduak ez ziren gaur egun ditugunak bezain eraginkorrak. GIBaren bidezko infekzioa garaiz diagnostikatzen bada, tratamendu medikoa berehala hasteko modua izanen dugu eta bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena handitu eta hobetuko ditugu.

Frogatua dago infektatuta daudela dakiten pertsonen ez dakitenek baino maizago hartzen dituztela infekzioaren transmisioa saihesteko neurriak. Diagnostikoak, norberari mesede egiteko ez ezik, infekzio gehiago ekarriko duen katea eteteko ere balio du. Infekzio berrien erdiak baino gehiago infektatuta daudela ez dakiten pertsonen sortuak dira.

Beraz, denek egin beharko genuke proba?

Espanian urtean milioi bat probatik gora egiten dira, baina ez dira aski. Jotzen da badirela GIBak infektatutako 30.000 - 40.000 pertsona, haiek jakin gabe. Horregatik, honako hauei gomendatzen zaie proba egiteko:

- Haurdun dauden edo haurra izateko asmoa duten emakume guztiak.
- Sexu-transmisioko infekzioen bat, tuberkulosia edo hepatitisa izan duten guztiak.
- Bikotekide egonkorra baldin baduzu eta hemendik aurrera sexu-harremanetan preserbatiborik erabili nahi ez baduzu.
- Jarraian aipatzen diren praktika arriskutsu hauetakoren bat izan dutenak:

- Sexu-harremanak sarketarekin (uzkitik edo baginatik, baita ahotik ere hazia isuri bada) preserbatiborik gabe GIB-dun batekin (emakumea edo gizona).
- Sexu-harremanak sarketarekin (uzkitik edo baginatik, baita ahotik ere hazia isuri bada) preserbatiborik gabe bikotekide desberdinekin edo pertsona bakarrarekin baina jakin gabe hori infektatuta zegoen edo ez.
- Drogak injektatzeko materiala partekatzea (xiringak, orratzak, koilarak, irazkiak...)

Eta zer da edo nola egiten da GIBaren proba?

GIBaren proba da norbait GIBak infektaturik dagoen jakiteko modu fidagarri bakarra.

Diagnostikorako erabiltzen diren probek gure organismoak GIBaren aurrean sortzen dituen antigorputzak neurtzen dituzte, odol analisi soil baten bidez.

GIBaren proba borondatezkoa eta doakoa da. Eskatzen duenak aholkua emanen dizu aurretik eta egin ondoren, eta emaitza isilpekoa da.

Noiz egin behar da GIBaren proba?

Uste baduzu praktika arriskutsuetan ibili zarela, zoaz zure sendagilearengana edo osasun etxera; bertan zure kasua aztertuko dute eta esanen dizute proba egiteko, eta emaitza negatiboa ateratzen bada esanen dizute berriz egin behar ote duzun eta noiz.

Sistema immunitarioak denbora zerbait behar du antigorputz kopuru bat sortzeko, probaren bidez detektatzeko adina, eta denbora hori ez da berdina izaten pertsona guztietan. Infektatuta egonik emaitza negatiboa ateratzen den denborari "leiho-aldia" esaten zaio. Jeneralean, infektatu ondoren, 2 - 8 asteko tartean garatzen dira detektagarriak diren antigorputzak, eta ia pertsona guztien baitan sortuko dira arrisku praktika izan eta handik 3 hilabeteren buruan.

Zergatik ez da orain gomendatzen 3 hilabete itxaroteko GIBaren proba egiteko?

Gaur egun dauden probek lehenago detektatzen dituzte antigorputzak.

Jarraipen medikoa lehenago egin daiteke eta agudoago har daitezke infekzioa beste pertsona batzuei transmititzea saihesteko neurriak.

Infektatuta gertatu ondorengo lehenbiziko asteetan infekzioa beste batzuei transmititzeko aukera oso handia da. Kasu gehienetan infekzioa gertatzen da sexu-harremana izateagatik berriki infektatu den pertsona batekin. Horregatik da hain inportantea laburtzea norbait infektatzen denetik diagnostikatu bitarteko denbora.

Proba egiteko motibazioa apaltzen joaten da praktika arriskutsua gertatu zenetik denbora aurrera joatearekin.

Non egin daiteke GIBaren proba?

GIBaren proba sare publikoko osasun zentroetan egin daiteke dohainik eta isilpean:

- Oinarriko osasun laguntzako zentroak: familia-medikua.
- Familia-plangintzako zentroak.

Badago proba erabat anonimoki egiteko aukeraren bat ere, inolako dokumentaziorik aurkeztu gabe. Proba horiek badituzte muga batzuk, lagin berarekin osasun-zerbitzuetatik proba gehiago eskatu eta diagnostiko zehatzago eta osoagoak egin daitezkeelako, den-dena dohainik.

Gobernuz Kanpoko Erakunde batzuetan ere egin daiteke proba; halakoetan test azkar batzuk egiten dira eta, positiboa ateratzen bada, emaitza berretsi behar izaten da.

Analisi klinikoak egiten diren laborategietan ere bai.

